



albisteak

es

Agenda

Edukiak

Ezagutza

Albisteak

Harpidetu

Harremanetarako

Kultur Baliabideen Direktorioa

[Hasiera](#) » [Albisteak](#) » Eusko Jaurlaritzak eta Galtzagarri elkartea Klis-Klasikoak...

Bilaketa aurreratua



Eusko Jaurlaritzak eta Galtzagarri elkartea Klis-Klasikoak liburu-bilduma aurkeztu du

2011-11-25

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren laguntzarekin Galtzagarri elkartea bideratzen duen liburu-bilduma da Klis-Klasikoak. Bilduma honek euskarazko haur eta gazte literaturan sumatzen zen gabezi handi bat erantzuten dio, eta bere helburu nagusia haurrentzako eta gazteentzako euskarazko liburu onak, kalitatezkoak egitea da, historian zehar ezinbestekoak bihurtu direnak gurera ekarri eta modu egokian plazaratzea

Euskarazko eta haur eta gazte literaturako liburu klasikoak berrargitaratzeaz gain, literatura unibertsalean klasikoak diren eta euskaraz oraindik modu duinean ez ditugun liburuak kaleratu nahi dira. Izen ere, euskarazko irakurteko zaletasuna sustatzeko ezinbesteko da euskarazko kalitatezko liburuak eskaintzea.

Horren haritik, gaurko honetan honako liburu hauek aurkeztu dira: *Txan Fantasma*, *Maria Goikoak batbirulau*, *Indiana eta Pinotxoren abenturak*. *Txan Fantasma* Elkar argitalepeak kaleratu du; beste hirurak, berri, Igela, Alberdania eta Ereinek elkarlanean. Liburu horietan hainbat egilek, idazlek, itzultzalek eta ilustratzailek hartu dute parte: Mariasun Landa, Jokin Mtxelena, Gregorio Muro, Anjel Lertbundi, Koldo Biguri, Garazi Goikoetxea, Antton Olariaga, Jon Zabaleta eta Francisco Fructuosok, besteak beste.

Liburu hauen hautaketa eta prestaketa lanetan Haur eta Gazte Literaturako profesional ezberdinak osatzen duten batzorde bat aritu da. Asun Agiriano bibliotekariak, Ibon Egaña literatur kritikari eta unibertsitateko irakasleak, Dani Maiz ilustratzaileak, Inazio Mujika argitaldaria, Itziar Zubizarreta idazole eta irakurzaletasuna sustatzen adituak eta Patxi Zubizarreta idazleak hartu dute parte hain zuen ere aipatu batzordean.

Liburu guzien diseinu-zuzendaritza, berri, Antton Olariaga eta Elena Odriozolaren esku geratu da. Eta lan honetarako Concetta Probanza ilustratzailearen kolaborazioa ere izan dute. Liburu guzien zuzenketa lanak berri, Mtxel Muruak gauzatu ditu.

Bego Muruaga Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria aditzera eman duenez, "2011 urte honetan bi egitasmo burutuko ditugu bi erakundeenean, Eusko Jaurlaritzaren eta Galtzagarriren artean. Lehenengoak 0-6 urte arteko haurrengan irakurketa ohitura bultzatzeko helburua zuen, eta Bularretik Mintzora izeneko kanpaina da. Gaur aurkezten ari den Klis-Klasikoak izenekoa da bigarrena, eta kasu honetan, haur eta gaztee euskarazko kalitatezko liburuak eskaintza du helburu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak ere bere laguntza eman nahi izan du, eta guztira ia 100.000 euro jarri du aurten bi proiektu horiek gauzatzeko".

Izen ere, haur eta gazteek nazioarte-mailako hainbat autore klasiko ezagutzeo, beste hizkuntzetara jo behar izaten dute. "Haur eta gazte-literaturan mundu-mailan ezinbestekoak diren lanak falta zaizkigu, hortaz, euskaraz, hain zuzen, hori ekiditeko, gaur aurkezten ari garen bilduma sortu da. Haur eta gazteen adin-tarte guztiak hartzen dituen bilduma: 4-8, 9-12 eta 12-16 urte arteko gazteei begira antolatutakoa", azpimarratu du Bego Muruagak.

Gaurkoan lau liburu hauek aurkeztu dira, baina datozen urteotaroko proiektu honek jarraipena izango duela aitorrtu dute bi erakundeek eta, hala, 2012. urtean ere liburu gehiagok argia ikusiko dute. Klis-Klasikoak bilduma honekin Galtzagarrik eta Eusko Jaurlaritzak bat egiten dute honako bi helburu hauetan: bata, euskarazko haur eta gazte literatura sustatzea, eta bestea, euskarazko irakurzaletasuna piztea haur eta gazteen artean.

eremuak



Ikusizko arteak

Arte eszenikoak

Musika

Ikus-entzunezkoak

Literatura

Artxibategiak, Liburutegiak eta Mediatekak

Museoak

Ondarea

Artisautza

Joerak

Arlo berrriak, Diseinua, Bestelakoak

Kultura Euskaraz

Sormen Lantegiak



albisteak



2012-01-30

Arte Eszenikoetarako eta Musikarako Kultura Ministerioaren 2012ko laguntzen deialdia

Resolución de 24 de enero de 2012, del Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música, por la...

2012-01-30

Sanferminetan Bollywoodedek egindako filmak, arrakasta handia Indian

"Bollywoododeko Oscar" delakoetan zazpi sari eskuratu ditu Zindagi Na

Iturria: [Kultura Saila](#)
Lizentzia: [Creative Commons by-sa](#)

Kategoriatik: [Literatura](#)

Etiketak: [aitziber alonso](#), [bego muruaga](#), [donostia-san sebastián](#), [eusko jaurlaritza](#), [galtzagorri elkartea](#), [haur eta gazte literatura](#), [hizkuntza politikarako sailburuordetza](#), [ibon egaña](#), [klis-klasikoak](#), [koldo mitxelena kulturunea](#), [kultura saila](#)

Eduki interesgarri gehiago:



[Espazio publikoetan euskara sustatzen bideratutako 'Kontalaria' egitasmoa martxan da](#)



[Euskadiko instituzio guztiak bat eginda ospatuko dute Euskararen Nazioarteko Eguna](#)



[Tabakalerarako bazkide bila dabilela baiezta du Urgellek](#)

Iruzkinak egin

RSS 2.0 Feed-en bidez, sarrera honek izandako edozein erantzunen jarraipena egin dezakezu. [Trackback](#) edo [erantzun](#) bat utz dezakezu.

Iruzkina

Izena (*)

E-posta (ez da argitaratuko) (*)

Webgunea

Bidali

Mlegi Dobra lanak Zindagi Na Mlegi Dobra ("Behin bakarrak bizi gara", euskaraz)...

2012-01-30

Harkaitz Cano: «Tortura kontagari bihur daiteke»

Bahitu, torturatu, hil eta desagerrarazi egin zituzten Soto eta Zeberio. Haien lagun Diego Lazcano gertakari horiek urratuta bizi da...



albiste

+

azken
iruzkinak



jmbarandiaran

(@jmbarandiaran)

dFERIA 2012: martxoak 12 – 15

jmbarandiaran

(@jmbarandiaran)

Euskadiko Orkestrek denboraldi honetarako bere "Musika gela"ren jarduerak aurkezten ditu

Kulturklik

"Bengoechea. El luchador de Urbasa", JYT Kreaktibos eta Bitart New Media egindako dokumentala

silvia

"Bengoechea. El luchador de Urbasa", JYT Kreaktibos eta Bitart New Media egindako dokumentala

Info Gaztea Araba

(@InfoGaztea)

Bertso Eguna 2012: Bertsozale Elkarreak 25 urte

antzerkia araba

argitaletxeak

aurkezpena bertsolaritza **bilbao**

bizkaia dantza desclée de

brouwer argitaleketa deustuko unibertsitateko argitalpen saila

diariovasco.com **dilve**

donostia-san sebastiá

N elkarlanean eragileak_antzerkia

eragileak_euskara

eragileak_ikus-entzunezkoak

eragileak_ikusizko arteak

eragileak_literatura

eragileak_musika erakusketa

euskarazko literatura **gipuzkoa**

haur eta gazte literatura haur eta gazte literatura liburuak hitzaldia

idazleak ikastaroa-tailerra

ikus-entzunezko emanaldia

jaialdiak **kontzertua**

kultur eragileak kultur zentroak

liburuak vitoria-gasteiz



Gune honetan...

Dekalogoa

Harremanetarako

Web mapa

RSS

kulturklik
Wordpress-i esker